

EN TOL SARMIENTO - BIOGRAFIA

En Tol Sarmiento —ETS siglaz ere ezaguna— Euskal Herriko ska-rock musikako talde bat da, reggae eta punk-rock doinuak ere sartzen dituena. Taldea Ekoran (Arabako Errioxa) sortu zen 2005. urtean. Partaideek 18 urte baino gutxiago zituzten eta musikaren inguruan ideia argirik ez...

Taldearen hasierako egitura hurrengoa zen: bi gitarra eta bateria. Dena den, gitarra jotzen zuen batek berehala albo batera utzi eta baxua hartu zuen, taldeari nortasun handia emanez. Hirukotea punk-rock abestiak bertsionatzen hasi zen, aldi berean abesti propioak konposatzen hasi zirelarik.

2007an, Arabar Errioxatik kontzertuak ematen hasi zirenean, tronpeta-jolea ezagutu zuten eta geroztik, taldeak etorkizunean jorratuko zuen estilo berri bat garatu zuen: Ska.

2009. urtean tronboi-jolea sartu zen taldean, taldeak gaur egun mantentzen duen egitura finkatuz: gitarra, bateria, baxua, tronboia eta tronpeta.

Euskal Herritik eta batez ere Arabako Errioxatik kontzertuz kontzertu ibili ostean, hainbat diska argitaratu zituzten.

2017ko azaroaren 28an, ETS taldeak *Ametsetan* diskoa atera zuen. Izan ere, bere jarraitzaile leialei eskerrak eman nahi zieten, 11 urtez eman zieten laguntasunarengatik. Disko horretan "*Ametsetan*" deituriko abesti bat dago, arrakasta handia izan zuena.



AMETSETAN - EN TOL SARMIENTO

Bazter txiki bateko _____, erosotasunaren etsaiak
Milaka kilometro amets berri baten bila
Hartu zure lekua berezian _____
Iragana uzteko albo batera

_____ antzera pauso txikiz aurrera, amestera

Ametsetan, ametsetan _____ urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan galdu genuen _____
Ametsetan, ametsetan zure mundutik _____
Ametsetan, ametsetan _____ bidean

Bizitzeko garaia oraina, arnasteko unea iritsi da
Ba al dakizu zein den zure ametsik _____?
Hartu zure lekua, berezian munduan
Iragana uzteko albo batera

_____ antzera pauso txikiz aurrera, amestera

(Leloa)

Ametsetan, ametsetan, _____ urte pasa dira
Ametsetan, ametsetan, ametsetan
Ametsetan, ametsetan zure mundutik _____
Ametsetan, ametsetan, ametsetan

(Leloa x2)

_____ bidean, ametsetan